

Erref.: FMR / Legelari aholkularia

**GAIA:** ERABAKI-PROPOSAMENA, SANTURTZIKO ASISTENTZIA-ZENTROA UNITATE SOZIOSANITARIO GISA ZABALTZEKO, ZAURGARRITASUN-EGOERAN DAUDEN ETA COVID-19AN POSITIBO EMAN DUTEN PERTSONENTZAT, OSPITALEKO ALTA JASO ONDOREN ETXERA ITZUL EZIN DIRENERAKO.

Gure inguruan koronabirusak kutsatutako kasuak –COVID-19, koronabirus-19 bidezko gaixotasun infekzioso– hedatu dira eta hedapen horrek eragin nabarmena izan du erakunde honen adinekoen arloko eta arlo soziosanitarioko zentro eta zerbitzuetako erabiltzaileengan, haien zaurgarritasun-egoera bereziaren ondorioz. Hori dela eta, erabiltzaile horiek behar bezala zaintzeko eta haien osasunaren babesarako oinarrizko eskubidea bermatzeko, administrazio erantzuleek emandako aparteko neurriak hartu behar dira gaixotasun horren hedapena prebenitzeko eta, ahal den neurrian, baretzeko.

Oraingo testuingurua da alarma-egoera eta larrialdi sanitarioko egoera deklaratu dutela, dekretu bidez, Espainiako eta Euskadiko gobernuek, hurrenez hurren. Hala, **martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak –zeinaren bidez alarma-egoera deklaritzen baita COVID-19ak sortutako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko–** neurri batzuk ezartzen ditu herritarren osasuna eta segurtasuna babesteko eta osasun-sistema publikoa indartzeko. Deklarazio biak behin eta berriro implementatu dira zuzen betetzen direla bermatzen duten garapen-arau batzuen bitartez.

Ildo horretatik, eta gehiegi luzatu gabe, **apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoa –Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzkoa–** aipatu behar da; izan ere, lege horrek ahalmena ematen die osasun-arloko agintariei abiaraz ditzaten prebentzio-ekintzak eta neurri egokiak, kontrolatzeko hala eriak nola haiekin kontaktuan dauden edo egon diren pertsonak. **Martxoaren 19ko SND/265/2020 Agindua, zeinaren bidez adinekoen egoitzei eta zentro soziosanitarioei buruzko neurriak hartzen baitira** COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz (2020ko martxoaren 21eko EAO, 78. zk.).

Eta azkenik, **Osasuneko sailburuaren martxoaren 27ko Agindua** aipatu behar da. Haren bidez, batetik, ezagutarazi eta interpretatu egiten dira martxoaren 23ko SND/275/2020 Aginduan eta martxoaren 19ko SND/265/2020 Aginduan jasotako neurriak, Euskal Autonomia Erkidegoko titulartasun publiko zein pribatuko gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentro guztietarako direnak, eta, bestetik, bi agindu horien garapenean esku hartzeko neurriak hartzen dira. Agindu horren **hirugarren apartatuan baimena ematen zaie berariaz** Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundietan **gizarte-zerbitzuen arloko eskumena duten organoei**, aginduetan ezarritako neurriak EA Eren eskumen-esparruan aplikatu ditzaten.

Horrenbestez, **aipatutako xedapenen babesean eta Gizarte Ekintza Sailak sustatuta, Foru Erakunde honek unitate soziosanitario bat prestatu behar du zaurgarritasun-egoeran dauden**



**eta COVID-19an positibo eman duten pertsonentzat, ospitaleko alta jaso ondoren etxera itzuli ezin direnerako.**

Unitate soziosanitario berri hori jartzeko leku egokiena Santurtziko Itsastarren Etxea izeneko higiezin da, eta, horretarako, aldatu egin behar da orain duen izaera. Kontuan hartu behar da, gainera, higiezin hori hutsik dagoela, goian adierazitako alarma-egoera eta osasun-larrialdiko egoera direla-eta hartutako erabakien ondorioz. Erabiltzaileen sarbide-ezaugarriak eta -profilak aurrekari horiei erantsitako memorian daude jasota.

Azaldutako asmoa bat dator ondasunaren izaerarekin, **zeina Gobernuaren apirilaren 27ko 80/1998 Dekretuaren bidez transferitu baitzen. IGIk laguntza eta gizarte-zerbitzuen arloan betetako eginkizunak eta zerbitzuak EAeri eskualdatzeari buruzkoa da dekretu hori.** Eta, gero, abenduaren 19ko 176/2000 Foru Dekretuaren bidez, berriro transferitu zen. Foru-dekretu horrek onetsi egiten du Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak hartutako erabakia, zeinaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoari transferitzen baitzaizkio zerbitzuak, giza baliabideak, ondasunak, eskubideak eta betebeharrak.

Aipatutako arauak ezarritako lege-araubidearen oinarri dira hauek: batetik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.12 artikulua, zeinak ezartzen baitu EAEk eskumen eksklusiboa duela gizarte-laguntzaren arloan, eta, bestetik, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeek gizarte-laguntzaren arloan emandako legeak betearazteko, Bizkaiko Lurralde Historikoak duen eskumena, Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.c.1 artikulua eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak ezarritakoarekin bat etorrita.

Hori dela eta, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-organismoek bere gain hartzen dute IGIk emandako gizarte-laguntza eta -zerbitzuen arloan betetako eginkizunak eta zerbitzuak betetzea beren lurralde-eremuan, kontuan hartuta Estatuko Administrazioari (IGIk betetako eginkizunak eta zerbitzuak EAeri eskualdatzeari buruzko erabakiarekin bat etorrita, apirilaren 2ko 558/1998 Errege Dekretuan jasotakoaren arabera) eta EAE Osorako Erakundeei dagozkien eskumen, eginkizun eta jarduketa guztiak.

Azkenik, **IGIren transferentziaren ondorioz, zentroak, zerbitzuak eta langileak atxikitzeari buruzko urtarrilaren 30eko 8/2001 Foru Dekretuak** xedatzen du GUFEn ondarean integratzen dela, besteak beste, Santurtziko Itsastarren Etxea.

Esan bezala, GUFEn eskumena da Santurtziko Itsastarren Etxea kudeatzea, eta, **Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreko erregistroko titulartasuna** gorabehera, GUFEk eskualdatutako arlo zehatz horretan egin behar duen babes-jardunaren intentsitatea eduki programatikoko eskubideen barruan sartzen da. Beraz, jardunaren intentsitatea eta gradua botere publikoek zehaztu behar dituzte une jakin bakoitzean, inguruabarrak eta dauden baliabideak



kontuan hartuta. Are gehiago, aintzat hartzen bada gai hau eskumen eksklusiboa dela EA Eren eremuan eta estatuz gaindiko arauak gomendiotzat hartu behar direla (adibidez, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 138. araua).

Laburbilduz, **GUFeri dagokio, Gizarte Ekintza Sailak eskatuta, gizarte-zerbitzuen kudeatzailea eta emailea den heinean, bere zerbitzuen irismena eta zerbitzuak emateko modua zehaztea, 4/2001 Foru Arauan** xedatutakoaren babesean, eta, zehazki, foru-arau horren 2. artikuluan xedatutakoaren babesean, non foru-erakundearen xedeak eta eginkizunak ezartzen baitira. Izan ere, artikulua horrek ezartzen du, estatutuen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ebazpenen esparruan, GUFEk agintzen zaizkion programen, jardueren eta zerbitzuen funtzionamendua antolatu ahal izango duela eta, horretarako, egokitzat jotzen dituen antolaera eta funtzionamendu-arauak ezarriko dituela. Horrez gainera, esan behar da prestazio hauek GUFEK emandako gainerakoen izaera legal bera dutela, eta, ondorioz, tratamendu bera izango dutela, bakoitzak dituen berezitasunak baztertu gabe. Analogiaz, adierazi behar da GUFEK adinekoen egoitzetan izan behar duen ohe-kopurua ez dela bete beharreko zuzenbideko xedapen bat, eta ez da halakoa, beraz, IGIren transferentziaren ondorioz bermatu behar den ostatu-hartzaileen ohe-kopurua, alderantziz baizik. Izan ere, lehen azaldu den bezala, xedapen horiek programatikoak dira eta politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidarien barruan sartzen dira.

Hori esanda, zehaztu behar da ez dagoela legezko eragozpenik zentroaren jardueran aldaketa hori egiteko, erakundeak Ondarroako Itsastarren Etxearen bidez edo itundu ahal diren beste aukera batzuen bidez bermatu ahal baitu zentro honetan orain arte eman duen zerbitzua.

Horiek horrela, apirilaren 14an gai honi buruzko informazio eman zitzaion Erakundeko ordezkartza sozialari, bitarteko ez-presentzialen bidez. Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen estatutuak aldatzen dituen maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 5. artikuluan xedatutakoarekin bat, Gobernu Batzordeari dagokio gai honen ardura.

Aurreko guztia kontuan hartuta, idazki hau sinatzen duenak honako proposamen hau aurkezten dio Gobernu Batzordeari, onar dezan

#### **ERABAKI-PROPOSAMENA**

**Lehenengoa.**- Santurtziko asistentzia-zentroa unitate soziosanitario gisa zabaltze udalerrri horretako Itsastarren Etxea izeneko eraikinean, zaurgarritasun-egoeran dauden eta COVID-19an positibo eman duten pertsonentzat, ospitaleko alta jaso ondoren etxera itzuli ezin direnerako.

**Bigarrena.**- Zentro berriaren erabiltzaileen ezaugarriak eta sarbide-profilak eranskin gisa erantsi den dokumentuan deskribatzen dira.

**Hirugarrena.**- Aipatutako zentroko plantilla osatu behar duten langileak zeregin-pilaketako formularen bidez kontratatuko dira, egoerari dagokion aurrekontu-plantilla eratu arte.



Lehenagoko Santurtziko Itsastarren Etxean lanpostua zuten langileak lanpostuz aldatu ahal izango dira gerentearen ebazpen arrazoitu baten bidez.

**Laugarrena.**- Interesdunei jakinaraztea hala erabaki hau nola haren aurreko txostena, zeina arrazoibide gisa gehitzen zaion erabakiari, eta adieraztea ezen, Lan Arloko Prozeduraren Legearen testu bateginean xedatutakoarekin bat, demanda aurkez dezaketela beronen kontra, lan-arloko epaitegian, jakinarazpena jaso eta hurrengo bi hilabeteetan. Horrez gainera, egokitzat jotzen duten beste edozein ekintza erabili ahal izango dute.

**Bosgarrena.**- Gerente andreaki ahalmena ematea erabaki hau behar bezala betearazteko beharrezkoak diren neurri guztiak har ditzan eta, bereziki, zentroko karteldegia eta lanaldiak ezartzeko direnak.

**Seigarrena.**- Erabaki honen berri ematea Gizarte Ekintza Saileko Zentroen Erregistroari, Lan eta Justizia Sailaren mendeko lan-agintaritzari, Osasun Saileko osasun-arloko agintariei eta Mutualia erakundeari, mota honetako lan-zentro berri bat dagoela jasota gera dadin.

**Zazpigarrena.**- Erabaki hau helaraztea Dibisio eta Departamentuetako buruei eta Erakundeko ordezkariak sozialari.

**Zortzigarrena.**- Erabaki honek beherago adierazitako egunean bertan sortuko ditu ondorioak, GUFEn iragarki-oholean, web-orrian eta intranetean argitaratzen den eguna gorabehera.

Bilbon, 2020ko apirilaren 16an.

GERENTEA

Sin.: Nerea Urien Azpitarte